

MARKA ETA ERRONKA

Kirolean euskararen erabilera sustatzeko jardunaldia



Parte-hartzaileen funtzio espezifikoetatik abiatuta (entrenatzaileak, koordinatzaileak, teknikariak, zuzendaritza-taldea...) kirol-entrenamendu eta ekitaldietan euskararen erabilera handitzeko egin daitekeenaz galdetu zitzairen. Ideiak A3 paperetan jaso ziren eta laburpen bat pantailan proiektatu zen *Mentimeter* tresnaren bidez.

Dinamikak emandakoak

Taldeka (guztira 7 talde), paperean (A3an), jaso dituzten ideiak:

Zer egin dezaket?

Erakunde ordezkariak/federazioak

- Dokumentazioa ele bietan ekoiztu eta hala eskatu
- Komunikazioetan euskaraz egin, ahoz eta idatziz
- Euskara planak garatu
- Euskararen aldeko hautu indibiduala hartu

- Zailtasunak identifikatu eta irtenbideak bilatu
- Arbitroekin aparteko lana egin
- Euskararen kudeaketak duen garrantzia transmititu
- “Familia berriei” kirolaren bidez euskalduntzeko aukera eskaini
- Derrigortasunak ezarri
- Dirulaguntzetan, euskara sustatzeko irizpideak ezarri
- Baliabideak sortu; gidak, etab.
- Zubi-langile
- Ekitaldiak euskaraz antolatu
- Gidak badaude, baina ez dira banatu
- Helduentzako eskaintzan gero eta euskara gehiago sartu; eskaintza elebiduna
- Haurrei eta gazteei eskaintza beti euskaraz
- Euskara erabiltzeagatik laguntzak, lehentasunak... eman
- Formazioak euskaraz jasotzeko aukera eman
- Formazioak euskaraz eskaini eta pertsonalizatuak

Kirolariak

- Lehengo hitza euskaraz beti
- Aurrean dugunaren euskara-gaitasunera moldatu gure maila
- Norbere burua euskaldun bezala agertu/azaldu
- Sare sozialetan jartzen ditugun gauzetan ere euskararen erabilera zaindu
- Komunikazioetan euskarari tinko eutsi, egoera guztietan
- Sare sozialetako mezuak euskaraz



Entrenatzaileak, hezitzaileak

- Kirolarien artean euskaraz egin dezaten sustatu
- Haurren eta nerabeen aurrean, eredu izan, barne komunikazioan zein kanpo komunikazioan

- Momentu informalagoei ere leku egin: euskara entrenamenduetatik kanpo ere erabiltzeko aukera baliatu
- Kiroletik kanpo ere euskaraz egin (ahalik eta gehien), horrela gero euskara kirolera ekartzea errazagoa egingo zaigu
- Talde kirolean jokaldiak, ariketak... euskaraz izendatu
- Euskaraz egin
- Familiei mezuak elebidunez bidali; euskara aurretik

Klubetako koordinatzaileak, zuzendaritzak

- Komunikazio, eskaintza... guztiak euskaraz eskaini
- Euskaraz hitz egiteko baliabideak eskaini
- Euskararen Nazioarteko Egunean euskararekin lotutako ekintzak egin
- Eredu izan euskararen erabileran
- Euskara erabiltzeko espazio seguruak sortu
- Familiekin egiten diren bileretan ele bietan egin edo bestela bi bilera egin; bietako bat euskaraz
- Komunikazioa elebidunez egin, gaztelaniaz bakarrik mezu batzuk jarritz
- “Marka eta erronka” bezalako ekitaldietan parte hartu
- Euskaraz dakiten zuzendaritza batzordeak egin/osatu
- Euskararen egoeraren berri jaso
- Eskola kirolean entrenatzaile euskaldunak beti
- Goi karguetan euskaldunak bermatu
- Euskara dakitenak beheko mailetan jarri
- Hizkuntza-irizpideak zehaztu estatutuetan eta euskararen aldeko neurriak jaso

Bestelakoak

- Kirol esparruan, nork bere hizkera tekniko erabili, euskaraz, Euskal Herritik kanpo ere bai (bestelakoak)
- Euskararekin lotutako espazio hurbilak sortu (udala)
- Sensibilizazio kanpainak (bestelakoak)
- Profesionalen kasuan, euskararena kontratuan jaso (bestelakoak)

- Euskara elkarrekin-eta hezitzaileak formatu eta formazioa eman (bestelakoak)
- Horrelako topaketa gehiago egin (bestelakoak)
- Horrelako topaketa gehiagotara joan (gurasoak), eta ez badago, horrelako gehiago egin (erakunde ordezkariak, federazioak, klubetako koordinatzaileak, zuzendaritzak)

Zer eskatu besteari?

Erakunde ordezkariak/federazioak

- Euskara komunikazioaren oinarri gisa hartu/erabili
- Administrazio publikoko telefono arreta euskaraz izatea; eskola kirola zerbitzua
- Federazioek euskaraz egitea
- Instalazio publikoetako langileek euskaraz hitz egitea
- Lehentasunak ematea instalazio eskaeretan
- Eredu izan, konpromisoa erakutsi
- Hitz teknikoetarako hiztegia erabili
- Dirulaguntzak eskaini
- Ziurtatu euskara erabiltzen den
- Komunikazioetan euskara erabili

Entrenatzaileak, hezitzaileak

- Kirolariek euskara (gehiago) erabil dezaten, estrategiez jantzi
- Ahalik eta gehien egin euskaraz (entrenatzaileak, hezitzaileak)

Kirolariak

- “Eskatzen duguna egin” > euskaraz egiteko eskatzen duenak beti egin dezala euskaraz

Klubetako koordinatzaileak, zuzendaritzakoak

- Erreferenteak “sortu” > adibidez, Euskal Herriko klub batera atzeritik datorren jokalaria baten motibazioa landu, jarrera positiboa(k) bultzatuz
- Entrenatzaileak formatu eta sentsibilizatu; bultzatu euskararen presentzia (klubetako koordinatzaileak, zuzendaritzak)
- Dakitena erabil dezatela
- Euskara sustatzeko planak egin



Mentimeter programaren bidez, jardunaldian proiektatu diren ideiak:



Mentimeter

Entrenatzaile/hezitzaile: euskara erabileraren eredu izatea eragile guztien aurrean (jokalari, familia, epaile...) adibidez: jokaldiak euskaraz izendatu

Materiala sortuta dago eta banatu behar da.

Kirolariak: Instagram eko publikazioak euskaraz egitea

Gurasoak: topaketa gehiago egitea Euskal Herrian eta euskara sustatzea bertan

Kirolariak: Euskal herritik kanpo jokatzean gure hizkuntza ezagutarazi

Kirolariak: jokalari euskaldunen artean euskaraz mintzatzea

Familia etorri berriei baliabideak eskaini euskaldundu ahal izateko

Talde moduan funtzionatu ahal izateko irizpideak finkatu hizkuntzaren erabilerari dagokionez

Komunikazioa elebidun egitea (edo soilik euskeraz batzuetan), erraztasunak eman euskeraz aritzeko.

Administrazioek lehentasuna ematea baliabideetan (instalazioak, diru laguntzak, etab.) euskerazko konpromisoa duten erakundeei.

Ayto. Ceder espacios amigables con el euskera Campaña de sensibilización

Komunikazioa guztietan euskararen presentzia izatea

Eredu izatea. Bakoitzaren hizkuntza hautuak eragina du bere inguruan

Klubetako koordinatzaileak: euskaraz hitz egiteko espazioa eskaini eskaintza euskaraz egiten, begiraleei baliabideak eskainiz, hizkuntza bultzatzeko ekintza bereziak egin..

Eutsi euskarari, lehenengo pausua etxetik ateratzen garenean ematen da

Euskaren formazio gehiago ematea eta pertsonalizatutak izatea

Entrenatzaileei: motibazio estrategiak eta formakuntza eskaintzea eta "fidelizatzea"

Ederación: Ser transmisor-puente Orgaizar eventos e euskera

Eredua izatea, konpromisoa euskararekiko momentuero.

Coordinadores: Importante participar en estos eventos Promocionar euskera en JD Comunicaciones en euskera 1º análisis de la situación

Konpromiso maila gorenetan mantendu behar da: gero eta altuago egon konpromisoa (koordinazioan, goiko karguetan), kargu baxuagoetan ere eskatu ahalko da konpromisoa

Arlo eta eremu guztietan eustea konpromisoa euskaren alde